

ETXAGOK ANA BEGIRA

153. ZKIA

153. ZKIA

AURKIBIDEA

Gaztelekuko XVII. Xake Txapelketa	03
Diskofesta	04
Kuboko II. Kanika Txapelketa	05
Topalekuko Ping-pong txapelketa	06
Irteera Debara	07
Gazteen Kultur jarduerentzako diru-laguntzen 2. deial- dia	08
Batetik Bestera argazki lehiaketako irabazleak	10
Gazte informazioa	12

OÑATIKO GAZTELEKURKO XVII. XAKE Txapelketa

AZAROAK 19, ZAPATUA, GOIZEKO 9etan
Izen-emate epea: Azaroaren 17a arte

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Gaztelekuan azaroaren 17a arte, astelehenetik ostiralera,
10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.
Telefonoz ere eman dezakezue izena 943 718 257 zenbakira
deituz, eta baita e-mail bat gazteinformazioa@oinati.net helbidera
bidalita ere. Izen ematea doan izango da oñatiarrentzat,
eta 4 euro balioko du gainontzekoentzat.

JOKUAREN SISTEMA ETA ERRITMOA

Jokua suitzar erara jokatuko da, 6 itzulitara, eta bakoitzak 15
minutu izango ditu bandera jaitsi arte.

SARIAK

- 1.....200 euro
- 2.....170 euro
- 3.....135 euro
- 4.....105 euro
- 5.....95 euro
- 6.....85 euro

Herriko lehenak: 140 euro

Herriko lehen gaztea: 105 euro



ETXAGOKA AMA BEGIRA - 2011KO AZAROA - 153. ZKIA

TOPALEKUKO EGITARAU

AZAROAK 19, ZAPATUA, 18:00ETAN

DISKOFESTA

SOUND PROYECT TALDEKO DJ-EKIN



KUBOKO EGITARAUA

Azaroak 19, zapatua, 17:00etan

III. KANIKA TXAPELKETA

Izen-emate epea: Txapelketa hasi arte

Berriz ere garai bateko joko eta jolasak berreskuratuz, hona hemen Kuboko III. kanika txapelketa. Garai batean makina bat jolasten genuen beirazko pilota txiki hauekin, hainbat modalitatetan, eta orain Kuboko gartetxoek hurbildu nahi diegu joko hiau, sofisticazio gehigirik gabea, sinplea, baina asko ngantxatzen duena. Berotu zuten hatzak, kanika laboritorio baldin badaukazue ez ahaztu ekartzea, eta eman ezazue izena txapelketa honetan, arratsalde on bat pasako duzue-eta.

TOPALEKUKO EGITARAUUA

IV. PiNG-pong txapelketa



AZarOAr 25, Ostirala, 18:00etan
Izen-emate epea: Txapelketa Hasi ARTE

TOPALEKUKO EGITARAUA IRTEERA

DEBA:

TRENBIDE ZAHARRA + PAINT-BALL-A
AZAROAK 25. ZAPATUA EGUN OSOKO PLANA



IAZ ERE GARAI HONETAN EGIN GENUEN DEBA ALDERA TXANGOA, ETA GAZTEEK
NOLA PASATU ZUTEN IKUSITA, AURTEN ERE ERREPİKATU EGINQO DUGU.
GOIZEAN DEBA INKURUAN DAGOEN TRENBIDE ZAHARREAN IBILALDITXOA
EGINGO DUGU. BEHIN GOSEA EGINDA, SAKOITZAK ERAMAN BEHARKO DUEN
SALKARIAZ GÖZATU, ETA SALKALOSTEAN LASTUR-EN DAGOEN DESABENTURA-RA
QERTURATUKO GARA PAINT-BALL-AZ GÖZATZERA.

GÖQÖRATU GARRANTZITSUA DELA QANÖRÄZKO SÖTAK ETA ALDÄTZEKO ARÖÖPAK
ERAMATEA, LASTUR-EKO BASÖA ÖSÖ LÖKÄZTUTA EQÖNGÖ SÄITÄ SEQURÄSKI. EZ
AHÄZTU SÄLKÄLTZEKÖA ERAMATEÄZ ERE, ETA GÖQÖRATU IZEN-EMATEAREKIN
SÄTERÄ QURÄSÖ EDO ARÖURÄDUNÄREN SÄIMENÄ ERE EKÄRRI BEHÄRKO DÖZÜELÄ.

IZEN-EMATE EPEA: AZAROAREN 16A ARTE

GAZTE KULTUR JARDUERENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK (II. deialdia)

**Eskaerak egiteko epea:
Urriaren 17tik Azaroaren 14ra**

Oñatiko gazteek eta gazte-talde edo elkarteek euren kultur jarduerak aurrera ateratzeko diru-laguntzen bigarren deialdia luzatzen du Udalak urtea amaitu aurretik. Lehen deialdian banatu gabe gelditu ziren 3607,45 €, eta horregatik erabaki da bigarren deialdi hau egitea. Beraz, badakizue, baldintzak betetzen dituzuela ustez gero, ondoren azaltzen dizuegun bezala egin beharko dituzue zuen eskaerok.

Hainbat kontzeptu ezberdinei emango zaie laguntza, besteak beste, urteko programaketa eta elkartearen sustapena, kultur sormena eta hedapenaren sustapena eta laguntza, materialaren erosketak eta eraberritzea edota bestelako ez-ohiko jarduerak. Diru-laguntza hauek jaso ahal izateko gutxienezko baldintzak, beti bezala, honako hauek dira: erakunde, talde, edo norbanako eskatzailea oñatiarra izan behar da, eta talde eskatzailearen kideen erdia gutxienez 12 eta 30 urte bitarteko adin esparruan izan beharko da. Banakoa izanez gero ere, adin esparru horren barruan izan beharko du. Baldintza hauek betetzen badituzu, lehenik eta behin dirulaguntza eskatu ahal izateko idazki ofiziala eskatu eta berau bete beharko duzu.

Idazkia bete ondoren, taldearen curriculuma aurkeztu beharko da (orain arte egindako jarduerak, helburuak, baliabide materialak, ...), taldeko arduradunaren nortasun agiriaren kopia batekin batera. Dirulaguntza egitarau bat aurrera ateratzeko baldin bada, egitarau bakoitzeko fitxa bat bete beharko da, jarduera horren gastu-sarreraren aurrekontua, eta aurreikusten diren epe, data eta helburuak zehaztuz.

Urriaren 17tik hasita, 20 eguneko epea izango da eskaerak aurkeztu ahal izateko. Eskaera egin eta 60 egunera erantzunik jasoko ez balitz, eskaera ez dela onartzen ulertu beharko du eskatzaileak. Gazteria Batzordeak eskaera guztiak aztertuko ditu, eta beharrezkoa ikusiko balu, egokitzen jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu. Zeren arabera baloratuko duen Batzordeak lan bakoitza? Ondorengo parame- troak dira erabiliko direnak:

- *Egingo den jarduera edo egitarauaren kalitatea, ekintza kopurua, ...*
- *Talde eskatzaileak urtean zehar aurrera daramatzan lanak herriko giza eta kultur mugimendua sustatzen laguntzea, eta Udalaren ekimenetan partehartzaile izatea.*
- *Taldeak bere lanean erakusten duen jarraipena eta egonkortasuna.*
- *Garatutako jarduerak herriko gazte guztiei zuzentzea.*
- *Taldeak bere lanean euskararen erabilpena sustatzea.*

Behin jarduera eginda, ebaluaketa fitxa bat bete beharko da, eta fitxa honekin batera jardueraren balantze orokorra, fakturen frogagiriekin batera, eta baita jarduera egin izanaren dokumentazio grafikoa ere (kartelak, liburuxkak, prentsa oharrak, ...). Azken hau kontsideratuko da jarduera egin izanaren ziur- tagiria. Dokumentazio hau ez aurkezteak, dirulaguntza bertan behera gelditzea ekarriko du automatikoki, gainerako baldintzaren bat ez betetzeak bezalaxe.

TOPALEKUKO EGITARAU

BATETIK BESTERA

argazki lehiaketako irabazleak



Batetik Bestera argazki lehiaketara aurkeztutako lanak erakusgai jarri, eta bertara hurbildutako en bozkak jaso ondoren (170 lagunek eman zuten bozka), lehen aldiz lehiaketa honetan berdinketa izan dugu. Izan ere, 48na botorekin, Deiane Errasti eta Jone Arrazola izan dira txapeldunak, eta ondoko bi argazkiak izan dira ikusleek onenak bezala aukeratu dituztenak. Zorionak bie!

TOPALEKUKO EGITARAU

BATETIK BESTERA

argazki lehiaketako irabazleak



Deiane Errasti



Jone Arrazola

LEHIAKETAK

- “Corto y Cambio” film laburren lehiaketa. Boluntario-tzaren Euskal Kontseilua.
Epea: Azaroaren 15a.
- II. Gaztezulo Bideo lehiaketa. Gaztezulo aldizkaria.
Epea: Azarok 15.
- Bidaia eta Mendi kroniken lehiaketa 2011. Berria.
Epea: Azaroak 13
- “Beste bat” diseinu grafiko lehiaketa 2011-2012.
Beste Bat.
Epea: 2012ko Urtarrilaren 15a.
- Beldur Barik! Jarrera saria. Berdinsarea. Epea: Azaroak 11
- Europako Batzordearen bideo Lehiaketa. Europar Batzordea (Espainiako Estatuak).
Epea: Azaroak 15.